

EDU ELOSEGI

Lore Unanue Azpiazu

Animazioaren mundua, oso mundu ezezaguna da gutako asko eta askorentzat; gehienontzat esaten ere ausartuko nintzateke. Hala ere bada gure artean animazioz eta marrazkigintzaz asko dakienik.

Gaztetan sartu zen mundu honetan, hobby modura hasiera batean, eta gaur egun bere lanbidea izateaz gain, animazioa bere bizitzaren ataletako bat ere badela esan genezake.

Sari bat baino gehiago eskuratua da, aurten azkena. Otsailaren 3an. Gau horretan banatu zituen Espainiako Zinema Akademiak Goya sariak eta Karramarro Uhartea animazio filmak eskuratu zuen animazioari ematen zaion saria. Edu Elozegi da Karramarro Uharteko piratetako bat.

Hiru urte luzeko lana izan da. 97. urtean hasi ziren gidoia idazten Joxan Muñoz eta Inazio Mujika Iraola. Urte bete geroago, 98an, berriz, marrazkilari eta animatzaileek ekin zioten lanari.

Hasieran esan dugu Edu Elozegi marrazkilaria dela, izatez, baina animazioan murgilduta dabilela buru-belarri. Hona hemen zer erantzun digun Karramarro Uhartean bere lana zein izan den galdetu diogunean.

E – Karramarro Uhartea luzemetraia bat da eta luzemetraia bat ezin du lagun bakar batek egin, talde zabal baten lana da. Batetik gidoigileak daude; bestetik gidoi hori gauzatuko dugunok, eta denon gainetik zuzendaria. Gidoia gauzatuko dugunon artean, berriz, bi talde bereizi behar dira, beste batzuen artean: marrazkilari taldea (paper eta arkatzaz lan egiten aritzen direnak) eta ordenagailuarekin aritzen direnak. Azken talde honetan aritzen naiz ni.

Marrazkiak bukatuta daudenean ordenagailura pasatzen dira eta orduan hasten da lan infografikoa deritzana.

Kasu honetan ere lanen arteko bereizketa egin beharra dago. Batzuek pertsonaiei kolorea ematen diete eta beste batzuek, berriz, pertsonaiak eta dekoratuak elkartu behar dituzte, kameraren mugimenduak egin, efektu bereziak sortu. Azken finean, irudi polita sortzea da azken hauen lana, eta hauxe izan da nire lana Karramarro Uhartean.


Zalantzarik gabe lan handia egin dute Karramarro Uhartea filmean aritu direnak. Goya sariaren ehuneko zenbatekoa den berea ere galdegin diogu Eduri, beste zenbait gauzaren artean.



E - Zaila da hori esatea. Nik uste dut egin dudana garrantzitsua dela, baina ezin esango nuke ehuneko zenbat den nirea. Zati txiki bat, baina inportantea.

L - Otsailaren 3an banatu ziren Goya sariak. Ikusi al zenuen sari banaketa?

Ez afari bat nuen lagunekin.



L - Eta nola jakin zenuen?

Aitak deitu zidan afarira esanez Goya saria irabazi genuela.

L - Ikusi al duzu Goyaren irudia?

Bai. Irusoin ekoiztetxeak bazkari bat antolatu zuen saria ospatzeko. Ia talde osoa joan ginen bazkari hartara, eta han gure eskuetan izan genuen Goya Jauna. Aurtengoak gutxiago pisatzen du. Lehen zortzi bat kilo pisatzen omen zituen eta arintzea erabaki dute, hiru kilo pisatzen ditu aurtengoak.

L - Karramarro Uhartearen tripulazioa, oso tripulazio zabala da?

Bai. Luzemetraia bat egiteko talde handia behar da. Marrazkilariak 50 bat izan dira. Euskal Herri guztiko marrazkilariak ez dira nahiko era honetako filme bat egiteko, eta ezinbestekoa izan da Madril, Valentzia eta Extremadurako marrazkilarien lana ere. Ordenagailuarekin aritu garenok berriz, 15-17 lagun izan gara. Une batzuetan hiru txandatan aritu gara lanean: goizez, arratsaldean eta gauean. Eta hauez gain ezin ahaztu, gidoilariak, zuzendariak, ekoizleak, administrazioak, bikoizlariak eta musikariak. Talde zabala benetan.

L - Joxan Muñoz eta Inazio Mujika Iraola izan dira gidoilariak. Zer moduzko harremana izan duzue zuen gidoilariarekin?

Jendarteko harremanak onak izan dira. Hala ere horrelako produkzioetan, normala da arazotxoaren bat

edo beste sortzea lanean. Arazoa beti bera izaten da. Euskal Herrian egiten diren produktu gehienak, diruak mugatzen ditu; diruak eta baita denborak ere. Ez dugu nahikoa denbora izaten gauzak aztertu eta pentsatzeko; horren ondorioz, zenbait kasutan gauzak korrika eta presaka egin behar izaten dira... Zuzendariak gauzak ondo pentsatu nahi izaten ditu eta guk ezin dugu itxaron produkzioa pilotzen joaten delako... eta hor sortzen dira tirabirak. Erabaki asko nahi baino azkarrago hartu behar dira, eta ez dira askotan zuzendariaren gustukoak izaten, baina ekoizpenak hala eskatzen duenez aurrera egin beharra dago. Nahiz eta era honetako tirabira batzuk izan, harreman ona dugu.

L - Eta zer iruditu zaizu emaitza?

Normalean oso kritikoa naiz nik egindako lanarekin. Nik produktu bat lasai ikusten dut egin eta handik hiru urtera. Zineman oso urduri jartzen naiz, akatsak ateratzen dizkiot filmari... "Hau horrela egin behar genuen, beste hura beste era horretara...". Beti duzu korapiloa tripan... ez duzu gustura ikusten. Egiten ditudan produktuak ikusi ondoren, guztiak hobetu daitezkeela uste izaten dut.

L - Zer zara oso zorrotza zure buruarekin?

Hori esaten didate behintzat. Hori bai, hiru urte pasatu ondoren egindakoa ikusten dudanean esaten dut: "Hori ere egin genuen bada! Ez dago batere gaizki!". Gauzak hotzean eta denborarekin ikustea gustatzen zait.

Edu Elosegik, bigarren Goya saria du aurtengoan. Duela lau-pabost urte beste bat eskuratu zuen. Orduan Begoña Vicarioren "Pregunta por mí" animazio filmak eskuratu zuen Espainiako Zine Akademiak ematen duen saria. Film laburra zen, hondarrarekin egindakoa. Argazki zuzendariaren lana egin zuen Eduk. Bere materiala



erabili zuen Begoña Vicariok Goya eskuratu zuen film labur hura egiteko. Zortzi kiloko Goya eskuratu zuten orduan (horregatik esan digu lehen aurtengoa arinagoa dela, beste bat eskuetan edukitakoa delako Edu).

L- Zenbat urte daramatzazu animazioa egiten?

E- 20 bat urte daramatzat animazioaren munduan sartuta.

L- Ezjakin garenok ondo uler dezagun, zer da animazioa?

E- Animazioa da irudiz irudi filmatu den edozer gauza. Adibidez animazioa egin liteke benetako pertsonekin. Geldirik dagoen pertsonari argazki bat ateratzen diogu. Mugitzen dugu pixka bat eta beste argazki bat ateratzen diogu; eta argazki hauek bata bestearen atzetik pasatzean, berez geldirik dagoen pertsona mugitzen ikusiko dugu. Hori da animazioa, eta horri deitzen zaio pixelation edo pixelatze.

Teknika asko dago: marrazki bizidunak, hondarrarekin egindako filmak, kartulinarekin egindakoak, plastilinarekin eginak eta baita ordenadorearekin egiten diren hiru dimentsiotako irudiak ere. Animazioa hitz generikoa da.

Teknika bat baino gehiago aipatu ditu Eduk. Bere lana marrazki bizidunetan dago oinarritua. Hasi, marrazkilari bezala hasi zen, eta teknika hori aukeratu zuen. Gaur egun, teknologia berrietan sartuta dago buru-belarri eta hiru dimentsiotako programekin ari da lanean; ikasten, berak esan digunez.

L- Egin dezagun 20 bat urte atzera, marrazkilari lanean hasi zinen garaira... Nondik zaletasun hori? Beti izan zara marrazkitan ona?

E- Ez, ona ez. Zalea bai, ona ez. Lehen esan dut kritikoa naizela oso nire gauzein. Txikitatik, eskolan matrikularen bat edo beste atera nuen marrazki arloan eta zalea nintzen oso. 20 bat urte neuzkanean zaletasun hau eta zinemaren mundua uztartzea pentsatu nuen. Orduan esan nuen, zergatik ez marrazki bizidunak?

Hasieran hobby bezala planteatu nuen, izan ere, garai hartan ez zegoelako ez eskolarik, ez ekoiztetxerik... Zegoen bakarra, oso oker ez banago, Juan Bautista Berasategi eta Jaizkibel kultur taldea zen. Kalabaza Tripontzia, Euskal Herrian egin zen lehen film luzea egiten ari ziren garai hartan. Ez zegoen ikasteko modurik. Hasi eta bi urtera Madrilen egin zen zazpi eguneko mintegi batera joatea lortu nuen. Animazioa zer zen eta nola egiten zen ikasteko mintegia zen hura. Egia esan, ez ziren urte errazak. Oso mundu itxia zen.



Madrilen Estudios Moro zegoen, oso enpresa handia eta itxia. Hara joaterik bazenuen, baina ez zizuten ezer ere erakusten. Sekretismoa handia zuten han lan egiten zutenek, eta egiten zutena, oso ondo gordeta. Beraz esan liteke, autodidaktak garela.

Lehenengo lanak super 8-rekin egin nituen, baina arazoak izaten ziren materiala eskuratzeko. Gogoan dut Xatur Idarretarekin ibiltzen nintzela serigrafia tailer batean poliesterra eta margoak erabiliz... horrela hasi nintzen. Anekdotak gisa kontatuko dizuet orduan erabiltzen genituen margoak binilozkoak zirela eta pintzelaren hileak jaten zituela. Bi egunez behin pintzela erosi behar izaten nuen.

Madrilgo mintegiaren ondoren, materiala eskuratu ahal izateko Bartzelona, Ingalaterra eta Parisko helbide batzuk lortu nituen. Parisen erosten nuen. Parisera deitu, materiala eskatu (azetatoak, margoak...) eta Hendaia bidaltzen zidaten, eta bertara joan behar izaten nuen bila, hori bai, ahal banuen zerga ordaindu gabe pasatzen nuen muga... eta horrela ibiltzen nintzen...

Zer kontatua badu Eduk. Garai bateko kontuak. Gaur egun apenas erabiltzen diren margoak eta azetatoa, desagertzen ari dira ordenagailuaren mesedetan. Hala ere material hau eskuratu nahi izanez gero, ez dago arazorik. Euskal Herrian bertan ere lor liteke gaur egun.

L - Ordenagailuak dira jaun eta jabe alor guztietan. Hala ere, gaur egun marrazkilari lanetan aritzen dena papera eta arkatza hartuta hasiko da lanean, ezta?

E- Bai. Marrazki bat egiten hasteko beti hasi beharra dago papera eta arkatza hartuta. Oso arraroa da, buruan pertsonaia bat izan eta zuzenean ordenagailuarekin lanean hastea.



Tresna oso baliagarriak dira ordenagailuak, baina ez oso interaktiboak. Sagua mugitzen duzunerako, ideiak joan egiten dira; papera eta arkatza hartzea eta buruan duzuna marraztea edo zirriborratzea izaten da onena hortaz.

L - Noiz iritsi zen zure eskuetara lehen ordenagailua?

E- Fernando Amezketarra marrazki bizidunekin hasi ginen ordenagailuarekin lanean. Zergatik? Ordenagailuak asko merketzen zuelako produktua. Lehen azetatoarekin ibiltzen ginen pertsonaiak koloretzatze, eta bakoitzak 30 pta. balio zuen. Kontuan izan behar da, sail batean pertsonaia jakin bat egiteko zatitu egin behar duzula pertsonaia hori... alde batetik burua, bestetik gorputza... orduan, irudi bakarra sortzeko bost edo sei plastiko erabili behar zenituen eta, azkenean, oso garesti ateratzen zen. Fernando Amezketarra egiten ari ginela konturatu ginen horrela ezin genuela aurrera egin eta erabaki genuen ordenagailua erabiltzen hastea. Orduan sartu ginen mundu horretan, eta horri esker egin ahal izan zen Fernando Amezkettarraren saila.

L - Merketu bai, baina lana errazten al du ordenagailuak?

E- Hori ere bai... neurri batean. Azetatoarekin margotzerakoan kontu handia izan behar duzu, kotoizko eskularruak erabili behar dira, ez zikintzeko, eta ordenagailuak, berriz, ez dakar horrelako arazorik, lasaiago egin dezakezu lana. Lan egiteko beste modu bat da: irudiak eskaneatu behar dituzu, marrazki ondo eskaneatu behar dira,... teknika bakoitzak bere alde onak eta txarrak ditu. Hala ere, nahiz eta merketu eta zenbait kasuetan lana azkartu, kontrako aldea ere badu. Izan ere, lana azkartzen den heinean lanak ere denbora laburragoan egin behar izaten dira. Lehen spot bat egiteko denbora eta prezio jakin bat zenuen, gaur egun erdira jaitsi dira prezioa eta denbora. Beraz,

lana lasaiago egin ordez, azkarrago egin behar izaten dugu. Bizi kalitatea ez da hobetu, behintzat.

L- Lanean bakarrik, taldean... era guztietara egin duzu. Aukeran nola?

E.- Bakardadean lan egiteko ez dut arazorik, zenbait unetan gustukoa dut. Baina honela lan egitean mundutik aparte sentitzen naiz, eta zenbait albiste, informazio eta berrikuntzatatik urrun ibiltzen zara. Talde lanak, aldiz, harremanak zaintzera behartzen zaitu eta, aldi berean, ez duzu galtzen animazio munduaren albiste eta berrikuntzen haria.

Azken finean, nahiz era batera zein bestera lan egin, helburua eskuartearen dudan proiektua aurrera ateratzea da beti.

L - Euskal Herrian nola dago animazioaren mundua?

E.- Aurten Goya sarietan animazioaren alorrean izendatuta zeuden lau proiektuetatik hiru euskaldunak izan dira. Estatu osoko proiektu gehienak Euskal Herrian egiten dira. Baina bada eztabaidarik horren inguruan. Lan asko egiten dira, baina, saltzeko garaian arazoak izaten dira.

Gehienetan, egindako lanak lkastoletara bakarrik zabaltzen dira. Distribuzioa edo zabaltze lana mugatua dago. Hori da Euskal Herrian dugun arazoetako bat.

Filmak zabaltzen dituzten enpresek, Disney, edota Estatu Batuetako animaziozko filmek merkatua hartuta dutela diote, eta horren kontra zaila dela leku bat egitea. Beraz zure filmak, ez bada ezaguna edota ez badu sari famaturen bat jaso, jai du merkatu txiki honetan.

Karramarro Uhartearekin haxe bera pasa da, Goya sariari esker estatua zabaltzea lortu dute. Hala ere Ahmed, Alhambrako Printzea filmaren ondoren badirudi egoera hau aldatu dela pixka bat, baina ez nahikoa halere.

L - Arazoetako bat hori dela aipatu duzu, zein da beste arazoa?

E.- Beste arazoetako bat marrazkilarien alorrekoa da, hain zuzen ere, ez baitago marrazkilari ikasketak egiteko eskolarik. Madrilen bi eskola daude, biak oso berriak, baina Euskal Herrian batere ez. Tarteka egiten dira ikastaroak, baina besterik ez. Eskuz enpresan ari nintzela, hiru kurtso antolatu genituen INEMekin 85ean. Eta ikastaro horri esker 60 bat marrazkilari trebatu genituen.

Baina gorabehera handiak dituen alorra da hau. Proiektu batean ari zaren bitartean ondo, baina proiektua amaitzean sei hilabete joan daitezke

eskuartean ezer ez duzula eta jende askok ezin dio sei hilabeteko geldialdi horri aurre egin. Horrek esan nahi du hainbat jende bidean geratzen dela.

Animazioari dagokionez, informatika mundua oso sartuta dago gaur egun orokorrean eta ez dago arazorik. Eskola eta Akademia askotan irakasten dituzte hiru dimentsioko irudiak egiteko programak.

Asifa Euskadi animatzaileen elkarteak 6 urte daramatza lanean Euskal Herrian, eta Nazioarteko Asifarekin lotura estua du. Munduan zehar 54 Asifa daude, hauetako bat Euskadikoa.

L - Aipatu dizkiguzun arazo edo kezka hauek, Asifa Euskadiren kezkak izango dira zalantzarik gabe, hala ere, zein da Asifaren lana?

E.- Ekintzak egiten ditugu, animaziozko filmaren mundua eta produkzioak bultzatzeko. Duela hiru urte adibidez, mintegi bat egin genuen Hondarribiko Aterpetxean, Bost eguneko mintegia izan zen eta Juan Padron Kubako zinema zuzendaria ekarri genuen. Bestetik, Bilboko zinemaldian ere parte hartzen dugu,



animazioaren atala antolatzen. Aldizkari bat ere badugu, Muittu, eta une honetan erakusketa bat prestatzen ari gara.

Hernanin aurkeztuko dugu erakusketa hori. Urte amaierarako prest egongo den itxaropena dugu, eta gure asmoa erakusketa ibiltaria izatea da.

L - Ze proiektu dituzu orain eskuartean?

E - Enkarguz filmatzen ari naiz El Pollo film laburra Madrilgo 12 Pingüinos enpresarentzat. Animazioa beraiek egin dute, eta nik filmatu egin behar dut.

Madrilen ere, Akademia batekin film labur bat

prestatzen ari gara, Noche de Ronda, eta Giacometti eskultorearen inguruko beste bat. Joan den hilean bukatu genuen El Aparecido, Manuel Fallaren El Amor Brujoren "La danza del terror" pasartean oinarritutakoa. Ikus-entzuleen saria eskuratu zuen, gainera, Madrilgo Jaialdi batean.

Donostian berriz, Lotura Films S.L. beste film bat hastear da, El Viaje izenburua duena, eta, ekipamendu infografiko guztia prestatu beharra dago. Ni naiz arduraduna, eta horretan ari naiz; zer ordenadore, zer disko... behar diren erabakitzen proiektu horrekin aurrera egiteko.

Canal Sur, Junta de Andalucia, ETB eta abarrek parte hartzen dute proiektu honetan, beraz, diru gehiena lortua du eta hilabete gutxi barru hasiko gara marrazkiak egiten. Pertsonaiak eginda daude eta une honetan gidoia berridazten ari dira.

Bi hilabete barru, beraz, bete-betean beste film luze batean murgilduta egongo naiz.

Horrez gainera, Asifarekin erakusketa antolatzen eta Muittu aldizkariaren 8. Alea prestatzen.

Egia esan, badut beste proiektu bat eskuartean. Ni neure kaxa egiten ari naiz bertan. 3 dimentsiotako programa ikasten ari naiz eta ariketa moduan film labur bat prestatzen ari naiz. Alegia batean oinarritutakoa. Euskal Herriak gaur egun bizi duen egoera eta alegia uztartu nahi ditut proiektu horretan. Gidoia Juan Bautista Erauskinek moldatutakoa da, eta pertsonaiak diseinatuta ditut dagoeneko.

Galdera bat baino gehiago utzi ditu airean Edu Elosegik. Argi dago, dena dela, galtza bete lan duela.

Gogor eta tinko aritu da lanean hasi zenetik, eta lan horrek izan du saririk. Batzuk dagoeneko guztiok ezagutzen ditugunak: Goya saria jaso duena esaterako; eta beste batzuk, berriz, beretzat gordeko dituenak.

Asifa Euskadi antolatzen ari den erakusketa baten berri ere eman digu, eta beraien lana nolakoa den jakiteko aukera izan liteke urte amaieraz gero herriz herri ibiliko den erakusketa hori.